MARURI-JATABEN, “EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK “ PROGRAMA ANTOLATU, KUDEATU ETA GAUZATZEKO BALDINTZA AGIRIA

1- ZERBITZUAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Kontratuaren xedea, ikasturte berria hasi baino lehenago, euskaraz mintzatzeko eta euskara ulertzeko zailtasunak dituzten 4-10 urte bitarteko neska mutilei, euskaraz aritzeko zailtasunak murrizteko eta euskaraz mintzatzeko gaitasuna indartzeko saioak antolatzea da.

Helburu nagusiak, honakoak izango dira:

- Umeekin euskara modu arin eta gozagarrian lantzea
- Euskararen motibazioa, ezagutza eta erabilera sustatzea
- Euskal Mundua, euskal kultura eta euskarak eskaintzen dituen baliabidea ezagutaraztea.

2.- EGUTEGIA, ORDUTEGIA ETA LEKUA

Jarduera honen egutegia, irailaren 5 eta 7an izango da 10:30etik 13:00era. Parte hartzaileen kopuruaren arabera, Kultur Etxean eta Jubilatuen lokalean egongo dira.

3.- METODOLOGIA ETA PROGRAMAZIOA

1 Metodologia:

Aurkeztu beharreko lan-programan baloratuko den metodologia dinamikoa eta parte hartzailea izango da. Hartzaileen adin tartera egokitzen diren ekintza erakargarriak bilatuko dira, eskolaz kanpo ere, euskara modu gozagarrian ikasteko helburuarekin.

Talde lana sustatuko da eta hori guztia konfiantza giroan eta presiorik gabe, euskara eta euskal mundua ezagutzea izango da helburua. Haurrak hitz egitera animatzea da dinamizatzailearen lana, hau da, presiorik gabe euskaraz parte hartzera animatzea.

2 Programazioa

Programazioan zehaztutako edukiak, beti ere, modu ludiko/didaktiko batean landuko dira: hiztegia lantzeko dinamikak, komunikazioa eta ahozkotasuna lantzeko ariketak, zenbait gai lantzeko jolasak (esamoldeak, zenbakiak, egiturak, aditzak …), euskaraz gozatzeko zenbait ekintza (jolasak, filmak, eskulanak, teknologia berriak …), euskal kultura lantzeko ginkanak, kulturartekotasuna (jolasak, errezetak, argazkiak …), antzerkia, euskal jai eta ohiturak, filmak, eskulanak, jolasak eta abestiak, jolasak hizkuntzarekin eta abar.

4.- GIZA BALIABIDEAK

Gehienez, 30 ume izango dira, talde bakoitza, gehienez, 10 ikaslek osatuko dute. Talde bakoitzaren ardura dinamizatzaile batek hartuko du. Dinamizatzaileetako batek, egitasmo osoaren kooordinatzailea ta arduraduna izango da. Gutxienez, bi dinamizatzaile beharko dira eta gehienez hiru.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan eta bai umeekiko harremanetan.

Dinamizatzaileen profila:

Titulazioa: Aisialdiko begirale titulua izatea. Halaber, Magisteritza, psikologia, psikopedagogia, euskal filologia gradua izatea edo edo ikasten ibiltzea onartuko da.

Euskara titulazioa:C1 titulua edo baliokidea.
Eskarmentua: Honelako programetan urte bateko eskarmentua izatea.

Enpresa esleipendunak, saioen kudeaketa osoaren ardura izango du eta langileak kontratatu beharko ditu.

Kontratatutako langileak esleitutako enpresarekin baino ez du izango lan harremana, hau da, ez du Maruri-Jatabeko Udalarekin juridikoki zerikusirik izango kontratua indarrean dagoen bitartean ez ostean.

Giza baliabideei dagokienez, enpresa esleipendunak ondoko betebeharrak hartzen ditu:

-Beharrezko logistika bermatzea langile aldaketa egin behar bada

- Langilearen egonkortasuna bermatu eskatutako zerbitzua eskaintzeko.

- Enpresaren esku egongo da langile horren soldata, lan baimenak, oporrak eta juridikoki zerikusia duen edozein gauza.

5.- EGINKIZUNAK

Zerbitzua garatuko duten <u>enpresaren zereginak</u> ondorengoak izango dira:

1) Programa antolatzea eta jarraipena egitea.
2) Dinamizatzaile bakoitzari beharrezko material didaktikoa eta programazioa garatzeko beharrezkoa den materialaz hornitzea
3) Taldeak antolatzea
4) Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea.

Dinamizatzaileen eginkizunak:

- Ikasleen euskararen komunikazio eta ulermena hobetzera bideratutako programa gauzatzea, modu ludiko eta didaktiko batez.
- Eguneroko beharren jakinaren gainean egotea (beharrezko materiala, azpiegiturak, etab).
- Gurasoekin harreman zuzena izatea

6.- UDALAREKIKO KOORDINAZIOA ETA ZERBITZUAREN EBALUAZIOA

Maruri-Jatabeko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria izango da Udalaren, eta enpresa esleipendunaren arteko koordinazioaz arduratuko dena. Koordinazio honek bermatu beharko du finkatutako helburuak betetzea.

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak jarduera amaitutakoan, bideratuko du amaierako Ebaluazio txostena

- Hiru hilez behingo ebaluazio-txostena. Honetan jasoko dira asistentzia-datuak, ekintzen ebaluazioa eta hobekuntza-proposamenak. Hiruhilekoa amaitu eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.